




**NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA**

Griotak, Afrikako artxibo historiko biziak

Afrika mendebaldea, 1235 urte ingurua. Sundiata Keita printze mandingak Maliko Inperioa sortu zuen. Lau mendetik gora iraungo zuen inperio horren hastapenen berri Sundiataren Epopeiari esker daukagu, belaunaldiz belaunaldi griot izeneko bardoek ahoz transmititurik guganaino iritsi dena.

Griotei djeli edo jali ere esaten zaie, eta gaur egun oraindik Afrika mendebaldeko herrialde askotan jarraitzen dute. Sundiataren Epopeiak jasotzen duenez, printzearen aita Naré Maghann Konaté semeari Balla Fasséké izeneko griota eskaini zion bere gortean aholkuari gisa jardun zezan. Bada, Balla Fasséké Koyaté grioten leinuko sortzailatzat jotzen da eta leinu horrek gaur egunera arte iraun du. Enperadore edo errege familia bakoitzak bere griot leinua zeukan eta herri askok ere bazuten beren griota, jaiotzen, heriotzen, ezkontzen eta bestelakoen berri jasotzen eta zabaltzen zutenak.

Griotak ez dira igorle hutsak. Kantuan eta musika tresnetan trebatuta egoteaz gain, edukia sortzen eta eransten joaten dira, inprobisatu egiten dute, eta agintariekin aholkulari gisa ere erabili izan dituzte. Francis Bebey idazle eta konpositore kamerundarrak “artxibo biziak” deitu zien.



ATLANTA BLACK STAR

Baina luzaroan artxibo ez fidagarritzat jo izan ditu europar historiografiak, esaterako, Sundiata bera existitu zela zalantzan jartzeraino. Ibn Khaldun historialari arabiarrek XIV. mendean jasotakoa hartu behar izan da kontuan griotek kantatutakoa neurri batean behintzat benetan gertatu zela onartzeko. Mendebaldeko historialariek tradizionalki

lehentasuna eman izan die iturri idatziei, eta iturri europarrak objektiboagotzat jo izan ditu. Baina, pixkanaka, aurrejuzkuak irentsi eta ahozko iturri horiek Afrikako historia ezagutzeko garrantzitsuak direla aitortzen hasi dira. Bitartean, Sundiataren Epopeia Mali, Gambia, Senegal eta Gineako hezkuntza curriculumen parte da. ●



MARISA RANIERI PANETTA

Ganadua %30 handitu zenekoa

CSICeko Milá y Fontanals erakundeko ikerlari talde batek Brontze Arotik hasi eta K.o. VI. mendera arteko Iberiar nahiz Italiar penintsulako 200.000 animalia arrasto inguru aztertu ditu, eta ondorioztatu du tarte horretan behien batez besteko tamaina asko handitu zela, %30 inguru.

Erromatarren garaian, populazioa kontzentratu ahala, haragi eskaera handitu zen, eta abeltzantza estentsi-

boa baztertu behar izan zuten. Eredu berriak abelburuak hazteko ur eta elikagai kantitate geroz eta handiagoak eskatzen zituen, eta beste ekoizle batzuekiko menpekotasuna ekarri zuen horrek. Ikerlariak antzekotasunak ikusten dituzte egungo kontsumo globalaren ereduarekin, eta horrelako ikerlan arkeologikoek etorkizunean abeltzantza eredu jasangarriagoak garatzen lagundu dezaketela uste dute. ●